



**2018ko BELDUR BARIK  
eta TOLOSAKO HI HAIZ,  
HI! LEHIAKETEN  
OINARRIAK**



## 1.- LEHIAKETAREN XEDEA

Beldur Barik programak Beldur Barik Jarrera! lehiaketaren 8. edizioa antolatu du. Lehiaketaren xedea da emakumeek jasaten duten bereizkeria-egoerei aurre egiten dioten neska-mutilen arte-adierazpen mota oro onartzea, baloratzea eta bultzatzea. Lanak errespetuan, berdintasunean, askatasunean, autonomian, erantzukizunean eta indarkeria sexistaren gaitzespen irmoan oinarritutako jokabide eta jarrerak izan behar dira.

Parte-hartzen duen proiektuek Beldur Barik jarrera islatu behar dute. Alegia, emakumeen aurkako indarkeria mota guztiak gainditzeko, eta harreman askeak, errespetuzkoak, parekideak, anitzak eta ez-sexistak eraikitzeko konpromiso pertsonal eta kolektiboa erakutsi behar dute. Kalitate teknikoaren edo artistikoaren gainetik, mezuaren kalitatea baloratuko da: nesken ahalduntzetik gogoetak eta eztabaidak sortzeko gaitasuna, eta mutilen konpromisoa matxismoaren aurka.

### TOLOSAKO HI HAIZ, HI! LEHIAKETARAKO INFORMAZIOA

#### Lehiaketaren helburua:

Errespetuan, berdintasunean, askatasunean eta autonomian, erantzunkidetasunean eta indarkeria tinko baztertzean oinarritutako jarrera eta jokabideak hartuta, emakumeenganako egungo desberdintasun-egoerari neska-mutilek aurre nola egiten dioten erakusten dituzten **adierazpen artistikoak aitortu, baloratu eta bultzatzea.**

## 2.- BELDUR BARIK JARRERAREN DEFINIZIOA

### Indarkeriaren gainean egiten den irakurketa:

- Irudikapen sentsazionalistetatik eta melodramatikoetatik aldentzen da.
- Hausnarketa egiten du faktoreen inguruan, indarkeria sexistaren zein indarkeria



matxistaren bestelako adierazpenak (translesbohomofobia) existitzea ahalbidetzen dituztenen inguruan.

- Honako estereotipotik haratago doa: indarkeria fisikoa bikotearen zein bikote ohiaren testuinguruan.
- Gazteek zehazki bizi dituzten ezberdintasun eta sexismo adierazpenak identifikatzen ditu, testuinguru anizetan eta beraien egunerokoan.

### **Proposatzen duen irtenbidea:**

- Indarkeria motak eta horiek sortzen dituzten faktoreak zein adierazpenak identifikatzeaz gain, aurre egiten zaie jarrera kritikotik, urratzailetik eta positibotik.
- Azaltzen diren irtenbideak indibidualak zein kolektiboak izan daitezke.

### **Beldur Barik jarrera irudikatzeko zenbait ohar:**

- Neskak: Burujabetzazko eta autodefentsazko jarreraren irudikatzen dira, indarkeriazko eta ezberdintasunezko egoeren aurrean.
- Mutilak: Ezberdintasunen, kultura matxistaren eta indarkeria sexistaren aurrean jarrera autokritikoan, proaktiboan eta konprometituan erakusten dira, korporatibismo maskulinoarekin hautsiz.
- Gorputzen, identitateen eta sexualitateen aniztasuna ikusgai egiten ditu.

### **Beldur Barik Jarrera lantzeko hiru norabide:**

Aurreko edizioetan jasotako lanetan agertzen diren gaiak mailakatzeko eta indarkeria sexista edota kultura matxistaren faktoreen sakontze horretan argibideak emateko 3 norabide zehaztu ditugu.

### **1.go norabidea: SARE ERANTZUN MOREAK:**

Helburua:

- Indarkeria sexista eta kultura matxistaren aurrean egon daitezkeen erantzun baikor eta urratzaileen (kolektiboak edo banakakoak) inguruan hausnartu.
- Indarkeria sexista eta kultura matxistaren aurrean egon daitezkeen erantzun baikor eta urratzaileak (kolektiboak edo banakakoak) ikusarazi.



BB jarrera erakutsiz burutu daitezkeen erantzun feministak erakusteko dauden bide edo jokamolde positibo eta urratzaileak ikusarazi nahi dituen gaia izango litzateke.

## **2. norabidea: MAITEZMINDU:**

Helburua:

- Harremanetan ematen diren jarrera sexistak hauteman eta euren inguruan hausnartu.
- Harremantzeko modu parekide eta anitzak, era baikor, inklusibo eta errespetuzkoan ikusarazi.

Gazteen egunerokotasunean eman daitezkeen harremantzeko modu anitzak eta parekideak ikusarazi nahi dira norabide honetan. Ondorioz, Maitasun erromantikoa alboratzen duten harremanak, mutilen arteko korporatibismoa baztertzen duten harremanak, heteronormatibitate kanpo ematen diren harremanak, txat birtualetan egon daitezkeen errespetuzko harremanak, homofobia eta transfobia alboratzen duten harremanak ... plazaratzea bilatzen da.

## **3. norabidea: TXO! Kontzientzia piztu eta jarrera berriztu!**

Helburua:

- Maskulinitate hegemonikoari loturiko jokabide, rol eta estereotipoen inguruan hausnartu.
- Mutilen korporatibismoa alboratu eta Beldur Barik jarrera barnean duten eredu baikor eta parekideak ikusarazi.

Mutilen genero eraikuntza hegemonikoa alboratzea bilatzen da norabide honetan. Mutil gazteek erasoen kontrako jarrera ikustaraztea eta konplizitate kutsakorrari aurre egiteko jarrera plazaratzea du oinarri. Rol hegemoniko eta estereotipoen inguruan hausnartuz eta paternalismo kutsua duten jokabideetatik ihes eginez.

## **3.- AURKEZTEN DIREN LANEN EUSKARRIA**

Edozein adierazpen artistiko onartuko da, baldin eta ikus-entzunezko euskarrian aurkezten bada: flashmob, errezitatutako poemak edota kameraren aurrean irakurritako hausnarketazko testuak, bideoklipak, fotografiak, fotomuntaketa, fotonobelak, lipdubak,



dantzak, laburmetraiak, animaziozko proiektuak, proiektuen edota artelanen aurkezpenak, performanceak, hiri esku-hartzeak etab.

#### 4.- LANEN BALORAZIOAN AINTZAT HARTUKO DIREN IRIZPIDEAK

- Originalitatea mezuak adierazteko orduan.
- Begiraden irekiera gazteek beraien egunerokoan bizi dituzten indarkeria adierazpenak identifikatzerako orduan.
- Aurkeztutako irtenbidearen ikuspegia eta tonua (Beldur Barik Jarrera, humorea, erantzun positiboak etab.)
- Positiboki baloratuko da, bai euskararen erabilera, bai azpigituluak sartzea lanetan entzumenezko aniztasun funtzionala duten pertsonen sarbidea errazteko.

#### TOLOSAKO HI HAIZ, HII! LEHIAKETARAKO INFORMAZIOA

##### **Eskakizunak:**

- Tolosa eta Tolosaldeko 12 eta 26 urte bitarteko neska-mutilak.
- Proposamenak aurkez daitezke banaka edo taldean (taldeen kasuan, gutxienez neska batek parte hartuko du), ikastetxe gisa edo ikastetxeko ikasgela gisa.
- Proposamen kopuruari dagokionez ez dago mugarik.
- Lanak edozein hizkuntzatan aurkeztu daitezke, betiere, euskarara egindako itzulpena erantsiz gero.
- Kontuan hartuko da gaien planteamenduan izandako jarrera eta originaltasuna, estilo eta generoen ugaritasuna eta hizkuntza eta irudi ez-sexistak erabiltzea, ohiko estereotipo maskulino eta femeninoak gaindituz.
- Lehiaketatik kanpo geratuko dira eduki, hizkuntza, irudi edo mezua dela-eta sexuagatik baztertzailak izan daitezkeen lanak, iraingarriak izan daitezkeenak, hirugarren batzuen sentsibilitatea iraindu edo eskubideak urra ditzaketenak.

##### **Modalitateak:**

Beldur Barik jarrera erakusten duten **edozein adierazpen mota**: ekintzak, ideiak,

bideoak, kontzeptuak, argazkiak, proiektuak, proposamenak, musika, poesia, eskultura, dantza, animazioak, performanceak, ilustrazioak, gogoetak, diseinuak, instalazioak eta abar.

## 5.- NORTZUK ETA NOLA HARTU DEZAKETEN PARTE

- 12-26 urte bitarteko gazteek hartu dezakete parte, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi edo ikasten dutenak.
- Parte hartzerako bi kategoria daude:

**1 kategoria: 12-17 urte**

**2 kategoria: 18-26 urte**

*\* Talde barruan 18 urtetik gorako norbait egonez gero, proiektua zuzenean pasatuko da 2 kategoriara.*

### **18 urtetik beherako parte hartzaileak egonez gero:**

1 eranskina edo 2 eranskina beteta aurkeztu beharko dute, oinarrietan erantsita datozenak:

*1 Eranskina. Norbanakoen baimena: gurasoen zein legezko tutoreen baimena adin txikikoei Beldur Barik programan parte hartu dezaten.*

*2 Eranskina. Taldekako baimena: ikasgela edo hezkuntza zentro bezala aurkezten diren lanentzako. Eranskin hau betetzeko ardura zentroko zuzendaritzarena izango da, zentroa bera izango delarik banakako baimenak jasotzearen arduraduna.*

*Gaztelekuak eta elkarteak: proiektuan parte hartzen duten parte hartzaile guztien banakako baimenak aurkeztu beharko dira, eta batera aurkeztu beharko dira.*

## **TOLOSAKO HI HAIZ, HI! LEHIAKETARAKO INFORMAZIOA**

### **Nori zuzenduta dago bereziki?**

➤ Kanean bakarka ibiltzeko beldur bazara.

- Kontrolatu eta umilia zaitzaten prest ez zaudelako bikote-harremana hautsi baduzu.
- “Benetako gizon” izateaz, inoiz zure sentimenduak agertzeko edo partekatzeko aukerarik ez izateaz nazkatuta baldin bazaude
- Zure sexualitatea askatasunez bizi nahi baduzu, behartu gabe edo presiorik gabe.
- “Ezezkoa ezezkoa dela” eta “baiezkoa baiezkoa dela” ziur baldin bazaude eta epairik jaso gabe adierazi nahi baduzu.
- Eremu publikoren batetik (taberna, metroa, kalea...) alde egin baduzu erasoak jaso duzulako eta nola jokatu ez zenekielako.
- Horrelako egoera bati aurre nola egin asmatu baduzu eta zure esperientzia beste neska batzuentzat lagungarri izan daitekeela uste baduzu.
- Zinemara, bidaietara, mendira, kontzertu batera edo antzeko beste ekintza batzuetara beldurragatik joateari utzi badiozu...
- Etengabe zeinen ausarta, gogorra eta indartsua zaren frogatu behar izateaz nekatuta bazaude.
- Beldurrak geldiaraz zaitzan uzten ez baduzu eta bakarka abenturak izaten ausartu bazara.
- “Ustez” broma sexistez nazkatuta baldin bazaude, jokabide sexistez lotsatzen bazara.

Kasu horietakoren batean zure burua identifikatzen baduzu, edo kasu horiek gogora ekartzen badizute ezagutzen duzun norbait, lehiaketa hau zuri zuzenduta dago. Hartu parte Beldur Barik! lehiaketan eta zure jarrerarekin frogatu sexismorik



gabeko gizartea eraikitzeko duzun konpromisoa, berdintasunean, askatasunean eta guztion gozamenean oinarrituta.

## 6.- GEHIENEZ AURKEZTU DAITEKEEN LAN KOPURUA

Pertsona eta talde bakoitzeko, gehienez, 3 proiektu aurkeztu daitezke.

## 7.- AURKEZTUTAKO LANEK BETE BEHAR DITUZTEN BALDINTZAK

**Formatua:** Lan guztiak ikus-entzunezko formatuan aurkeztu beharko dira, Youtube edo Vimeo plataformetarako esteka erraztuz.

**Iraupena:** Gehienez 5 minutu izango ditu kredituak barne.

**Lanek lehiaketaren helburuari erantzun behar diote:** indarkeria sexista prebenitzea. Aurkeztutako lanen edukiak helburuaren lorpenerako helburuarekin zerikusirik ez, edota beraren aurkakoa edota kalterakoa izanez gero, lehiaketako antolatzaileek lana ez onartzea erabaki dezakete. Ebazpena parte hartzaileei jakinaraziko zaie.

**Originaltasuna:** Proposamenak originalak izan beharko dute, plagiatu, usurpatu edota hirugarren pertsona batzuei kopiatu gabekoak. Susmorik izanez gero, lanari dagozkion autoretza probak eskatuko dira.

Lanak ezin izango dira izan Beldur Barik programarekin lotuta ez dauden beste jaialdi edo lehiaketa batzuetara aurkeztutakoak.

**Hizkuntza irizpideak:** Lanak euskaraz, gazteleraz, elebietara zein bestelako hizkuntzaren baten aurkeztu ahal izango dira, baldin eta euskarazko edota gaztelerazko azpigituluak badituzte.

**Musika eta irudi erabilera:** Autoretza eskubideetatik aske daudenak erabiltzea gomendatzen dugu (copyleft lizentziadunak edota norberak sortutakoak). Autoretza eskubideak dituzten irudiak edota abestiak erabiliz gero, parte hartzaileek beraien gain hartzen dituzte ikus-entzunezko plataformek edota autoreek bideoaren aurka hartzen dituzten neurriak. Era berean, egiaztatzen badugu lanen batek jabetza intelektualaren eskubideren bat urratzen duela, antolakuntzak lana ez onartzea erabaki dezake.

Bestelako baldintza zehatz batzuk:





**18 urtetik beherakoak:** 18 urtetik beherako guztiek 1 eranskina edo 2 eranskina aurkeztu beharko dute (oinarriekin bat datozenak) egoki beteta web guneko formularioan (eremu guztiak beteta eta sinatuta).

Youtube edo Vimeo bezelako bestelako plataformetara igotako bideoen deskribapenean honako informazioa erantsiko da: bideoaren izenburua, zein udalerritatik eta kategoriatik aurkezten den.

## 8.- NOLA AURKEZTU LANA LEHIAKETERA

1. Youtube edo Vimeo plataformetara igo. Plataforma horiek sorrarazitako esteka da aurkeztu beharko duzuen.
2. Beldur Bariken web gunean aurkitzen den formularioa bete, [www.beldurbarik.eus](http://www.beldurbarik.eus) helbidean aurkitzen dena. Formulario honetan jarri beharko duzue bideoaren esteka, aldezturik ikus-entzunezko plataformara igotzen ena.
3. Formulario osoa egoki betetzen bada mezu bat agertuko zaizue esanez izen ematea egoki burutu dela.
4. Behin lana aurkeztuta programaren idazkaritza teknikoak egiaztatuko du lanak oinarrietako baldintza guztiak betetzen dituela.
5. Behin egiaztapena burututa, idazkaritza teknikoak email bidezko jakinarazpena egingo du formularioan erraztutako emailera, lehiaketarako onarpena edo ez-onarpena jakinaraziz. Onartutako lanak web gunean publikatuko dira.

### TOLOSAKO HI HAIZ, HI! LEHIAKETARAKO INFORMAZIOA

Lanak aurkezteko, **Gazteria eta Berdintasun** departamentuekin harremanetan jarri behar da:

Telefono-zenbakia: 943 670 383 (Kultur Etxea)

E-mailak: [gazteria@tolosa.eus](mailto:gazteria@tolosa.eus) eta [berdintasuna@tolosa.eus](mailto:berdintasuna@tolosa.eus)

## 9.- LANAK LEHIAKETARA AURKEZTEKO EPEAK

Lanak aurkezteko epea 2018ko irailaren 24an irekiko da goizeko 09:00etan, eta 2018ko azaroaren 9an itxiko da gaueko 24:00etan.



## TOLOSAKO HI HAIZ, HI! LEHIAKETARAKO INFORMAZIOA

Lehiaketa hasteko eta lanak jasotzeko epea: **urriaren 16an hasiko da eta abenduaren 14an bukatuko da (biak barne).**

### 10.- SARIAK

**1go kategoriako saria: 500 €**

**1go kategoriako aipamen berezia: 300 €**

**2. Kategoriako saria: 500 €**

**2. kategoriako aipamen : 300 €**

**Ikus-entzunezko ekoizpen onenari saria\*: 300 €**

**Parte hartzeari saria\*\*: 300€**

Aurkeztutako lanak lehiaketa orokorrean parte hartzeaz gain, formularioan izena ematerako orduan jarri duzuen udalerriko lehiaketa lokalean ere parte ahal izango du, kontuan harturik udalerrri guztiek ez dutela lehiaketa lokala antolatzen.

Goian deskribatutako sariei ezarri zaie dagokien zerga-atxikipena.

*\* Ikus-entzunezko ekoizpen onenaren saria bi kategorietara aurkeztutako edozein lani eman ahal izango zaio, eta Beldur Barik Jarrera! mezua adierazteko kalitatezko baliabideak edota kode artistikoen erabilera baloratuko da. Lehiaketako antolakuntzak saria hutsik izendatzeko eskubidea du.*

*\*\* Parte hartzeari sarian bi kategorietako edozein lanek hartu ahal izango dute parte, baldin eta lan horiek Beldur Barik Jarrera! lehiaketako antolatzaileek aurretik hautatutakoen artean badaude.*

## **TOLOSAKO HI HAIZ, HI! LEHIAKETARAKO INFORMAZIOA**

1. KATEGORIAKO SARIA: 225 €

2. KATEGORIAKO SARIA: 225 €

### **11.- EPAIMAHAIA**

Antolakuntzak epaimahaia izendatuko du, eta berau osatuko dute: proiektu honi lotutako erakundeetako ordezkariak; aurreko edizioko irabazleak; eta sormenaren, kulturaren eta hezkuntzaren munduetako eta berdintasun politiken alde eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako borrokan aritzen diren emakume feministek.

Epaimahaiaren eginkizuna izango da bi kategorietan aurkeztutako lanei buruz eztabaidatzea eta proiektu irabazleak zein aipamen bereziak hautatzea.

Epaimahaiaren erabakiei ezin izango zaie aurka egin.

## **TOLOSAKO HI HAIZ, HI! LEHIAKETARAKO INFORMAZIOA**

Antolakuntzak izendatuko du epaimahaia osatuko da Tolosako Udaleko ordezkariekin eta emakumeenganako indarkeriaren borrokan eta berdintasun-politikak sustatzen inplikaturik dauden sorkuntzaren, gazteriaren, kulturaren eta hezkuntzaren munduarekin lotutako emakume feministekin. Haren osaketa epaia argitaratzean emango da ezagutzera.

### **12.- EPAIMAHAIAREN EBAZPENA**

Lan sarituak ezagutzera emango dira 2018ko azaroaren 24an, XXXn (Araban) udalerrian ospatuko den Beldur Barik Topaketan.

Bestalde, bozkaketa bidezko parte hartzeari saria izendatzeko funtzionamendua honako hau izango da:

- Epaimahaiak aldeztuak izango dira aurkeztutako bideoen aukeraketa bat, hain zuzen ere, Beldur Barik. Jarrera irizpideak modu egokian adierazten dituzten



lanekin (oinarrietako lehen puntuan jasota datozenak). Horiek izango dira herri bozkaketara pasatuko diren lanak.

- Parte hartzearen saria izendatzeko herri bozkaketa sistema azaroaren 19an aktibatuko da, goizeko 08:00etan.
- Parte hartzeari saria irabaziko du azaroaren 22ko 23:59etan bozka gehien eskuratu dituen lanak. Izan ere, egun eta ordu horretan, bozkaketa prozesua itxi egingo da.
- Bozkaketa Beldur Barik webgunetik jarraitu ahal izango da, eta sare sozialen bidez hedatuko da: Facebook, Twitter eta Instagram bidez.
- Prozesuan irregulartasunik aurkitzen bada (webguneko hackeoa, email masiboak sorrarazteko aplikazioen erabilera, webgunearen identitatearen ordezkapena etab.), herria saria hutsik gera liteke.

## TOLOSAKO HI HAIZ, HI! LEHIAKETARAKO INFORMAZIOA

### Epaia

Epaia aurkeztuko da Tolosan, **abenduaren 19an, 20:00etan, TOPIC**en izango den Hi, haiz hi/Beldur Barik Jaialdian. Epaia zuzenean jakinaraziko zaie irabazleei.

### Oinarriak onartzea:

Lehiaketan parte hartzeak berekin dakar oinarriak osorik onartzea.

### Proposamenek bete beharreko baldintzak:

- Epaimahaiaren erabakiak eztabaidaezinak eta apelaezinak izango dira.
- Proposamenek originalak izan behar dute, plagiatu gabeak edo hirugarren batzuei usurpatu gabeak. Lehiakideek egiletasuna frogatzeko gaitasuna izan beharko dute, antolakuntzak hala eskatuz gero.
- Lehiaketaren antolakuntzak ez du bere gain hartzen parte-hartzaileek bidaltzen dituzten eta hirugarren pertsonen egiletza eskubideak urra ditzaketen proposamenen ardura.



### 13.- LEGE-ALDERDIAK

Lehiaketara aurkeztutako parte hartzaileek baimena ematen diote Beldur Barik Programari lana erabiltzeko BB inguruko ikus-entzunezko zein inprimitutako materialak sortzeko, promozionatzeko eta hedatzeko. Parte hartzaileek, gainera, baimena ematen diote programari honako ekintza hauetara:

- Publikora irekitako erakustaldietan lanak erreproduzitzera eta proiektatzera (Topaketan, programaren aurkezpen saioetan...)
- Lanak egokitzera proiektatu edo erreproduzitu ahal izateko beharrezkoak diren formatuetara.
- Laneko irudiak edo pasarteak erabiltzera programaren aurkezpen materialetan sartzeko (aurkezpen spot-a, pieza grafikoak etab.)

Dena den, lanen bat hezkuntza edo kultur helburuekin erabiltzekotan, Beldur Barik Programa harremanetan jarriko da formularioan zehaztutako kontakturako pertsonarekin. Norbait ados ez badago klausula honekin, antolatzaileei idatziz jakinaraztea eskertuko da.

Lehiaketako antolakuntzak ez du erantzukizunik bere gain hartzen, baldin eta bidaltzen zaizkion proposamenetan inoren egile-eskubideak urratzen badira; bideoa bidali dutenek izango dute erantzukizun osoa, erreklamaziorik egonez gero. Era berean, parte hartzaileek beren autoretza frogatu beharko dute antolatzaileek hala eskatuz gero.

Lehiaketaren antolatzaileek sariak hutsik utz ditzakete.

*EMAKUNDEk, indarrean dagoen Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa betez, jakinarazten dizugu emandako datu pertsonalak Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen jabetzako datu pertsonalen fitxategi automatizatuetan sartuko direla. Fitxero honetako datuen erabilera bakarra, zeinak ez diren esleituko hirugarren batzuei, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundera mugatzen da.*

*Nahi baduzu datuak eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta aurkaratzeko eskubideak gauzatu ahal dituzu, Legean aurreikusitakoari jarraituz. Horretarako Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundera jo dezakezu (k/ Manuel Iradier 36, 01005 Gasteiz).*



## 14.- ANTOLAKETA

Emakundek antolatu du, eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Aldundiek, eta EUDELeK bultzatzen dute, eta hauen laguntza du: Eusko Jauriaritzako Gazteria Zuzendaritza eta Hezkuntza Sailarena, Euskal Herriko Unibertsitatearena eta EITBrena.

Informazio gehiago hemen:

[www.beldurbarik.eus](http://www.beldurbarik.eus)

[info@beldurbarik.eus](mailto:info@beldurbarik.eus)

Harremanetarako: 693 736 050

UDALERRIKO INFORMAZIOA

### TOLOSAKO HI HAIZ, HI! LEHIAKETARAKO INFORMAZIOA

Harremanetarako: **Gazteria eta Berdintasun departamentuak - Tolosako Udala**

Telefono-zenbakia: 943 670 383 (Kultur Etxea)

E-mailak: [gazteria@tolosa.eus](mailto:gazteria@tolosa.eus) eta [berdintasuna@tolosa.eus](mailto:berdintasuna@tolosa.eus)



1 ERANSKINA

**GURASOANE EDOTA AITAREN, TUTOREAREN\* BAIMENA ADINGABEKOEK  
BELDUR BARIK LEHIAKETAN PARTE HAR DEZATEN.**

LEHIAKETAN PARTE HARTZEN DUEN PROIEKTUAREN

IZENBURUA: .....

.....andreak/jaunak, adinez nagusi, ..... zenbakidun

NAN duena, eta ..... jaunak/andreak, adinez nagusi, ..... zenbakidun

NAN duena, helbidea ..... n dutenak, ..... telefono zenbakiarekin,

..... adingabekoaren (..... urte dituen eta ..... e-maila

duena) ama/aita (edo tutore), eta beraz, legezko ordezkari, diren aldetik.

ADIERAZTEN DUGU:

Ohorerako, Norbanakoaren eta Familiaren Intimitaterako, eta Norberaren Irudirako Eskubidearen Babes Zibilari buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoan ezarritakoa betetzeko, BAIMENA EMATEN DIOGU, BERARIAZ, gure ..... alabari/semeari, Beldur Barik Lehiaketan parte hartzeko, emakumeen aurkako indarkeriaren prebentziorako, eta lehiaketaren oinarriak onartzen ditugu.

Ados gaudela adierazteko hori guztia sinatzen dugu

.....n, .....(e)ko .....aren .....(e)(a)n

*\*Gaztearen guraso-ahala duten pertsonak baimena sinatu behar dute (bi badira, biek; zaintza eta babespea guraso bakarrak badauzka, nahikoa da beraren baimena). Izatezko edo zuzenbidezko banantzeen eta dibortzioen kasuetan, zaintza eta babespea dagozkion pertsonak sinatu beharko du.*



## 2 ERANSKINA

### IKASTETXEAREN BAIMENA BELDUR BARIK LEHIAKETAN ADINGABEKOEK PARTE HARTU AHAL IZATEKO.

LEHIAKETAN                    PARTE                    HARTZEN                    DUEN                    PROIEKTUAREN

IZENBURUA: .....

.....

.....andreak/jaunak, adinez nagusi, ..... NAN  
zenbakiarekin, helbidea .....n ,.....telefono zenbakia eta

.....e-maila dituenak..... ikastetxearen edo  
elkartearen arduraduna den alde eta adingabekoen familien edota lege-ordezkarien  
baimena aurretik jasota:

#### ADIERAZTEN DU:

Ohorerako, Norbanakoaren eta Familiaren Intimitaterako, eta Norberaren Irudirako  
Eskubidearen Babes Zibilari buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoan  
ezarritakoa betetzeko,

BAIMENA EMATEN DIEGU, BERARIAZ, Beldur Barik lehiaketan parte hartzeko,  
emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko antolatua, eta lehiaketaren oinarriak  
onartzen ditugu.

Ados gaudela adierazteko hori guztia sinatzen dugu

.....n, .....(e)ko .....aren .....(e)(a)n